

## **178.000 dokumentu bildu dituzte Eresbileko musika artxiboan**

**Eresbileko arduradunek jakinarazi dutenez, 5.500 material berrirekin handitu zuten iaz euskal musikaren artxiboa**

Jon Gonzalo

### **2009ko ekitaldiak eta egitasmoak**

2008 urteari errepassoa eman zioten atzo Donostiako Koldo Mitxelena Liburutegian Eresbil Euskal Musikaren Artxiboko arduradunek. Jon Bagues zuzendariak azaldu zuenez, 2008an 5.500 material berrirekin handitu dugu euskal musikaren artxiboa, eta 178.000 dokumentu izatera iritsi gara. 2008an lortu duten materiala askotarikoa da: 2.200 partitura, 500 liburu, 1.000 sarrera berri dokumentazioaren atalean eta 1.700 ikus-entzunezkotan. Beraz, gaur egun artxiboan aurki daitezkeen 178.000 dokumentutik 8.300 dokumentazio kapitulokoak dira, 63.000 partiturak, 15.400 liburuak eta 91.000 ikus-entzunezko materialak.

Partiturei dagokienez, XV. eta XVII. mendeetako polifonia bildumarik handiena eskuratu du Eresbilek. Disko bilduma osatzeko, bestalde, Music of Africa Series eta Great European Organs musika bildumak erosi ditu, munduko musiken eta organurako musikaen bilduma indartzeko helburuarekin. Halaber, doktorego tesiak ere erosi ditu Eresbilek. Guztira, euskal musikarekin edo musikagileekin zerikusia duten 52 tesi erosi ditu, gehienak IparAmerikan irakurritakoak.

Webguneari dagokionez, azkenik, 2008an zehar eguneratzeko eta hobetzeko lanetan aritu direla jakinarazi dute Eresbileko arduradunek. Hartara, aurrerantzean euskal musika artxiboarekin lotutako informazio guztia eskuratu ahal izango da Eresbileko webgunean.

### **Eresbileko edukien hedapena**

Interneten erabilpenak Eresbileko edukien hedapena erraztu duela azaldu dute bertako arduradunek. Eresbileko artxiboarekin harremanetan jarri diren erabiltzaileen %28k Internet bidez egin du. %41ak, berriz, telefonoz eta %24k posta elektronikoz.

Eresbileko edukiak hedatzeko, ordea, bestelako ekimen batzuetan ere parte hartu du euskal musikaren artxiboak 2008an. Batetik, CM- Ediciones Musicales diskoetxearekin batera bi partitura edizio prestatu dituzte: Aita Donostiaren harizko laukotea eta Jesus Aranbarriren laukotea.

Bestetik, Eusko Ikaskuntzarekin duen lankidetzaren areagotua egin du Eresbiletan. Musiker aldizkariaren 15. alerako Jose Antonio Arana-Martijari buruzko erreportajea kaleratu dute euskal musikaren artxiboko arduradunek. Azkenik, 2008ko Juan Zelaia Letamendia beka Eneko Sanz eta Alberto Irigoien ikerlariei eman diete Uruguayko Euskal kolektibitatearen manifestazio kultural batzuk: Jaialdiak, musika eta dantza lanarengatik. 2009ko ekitaldiak eta egitasmoak

Eresbil Euskal Musikaren Artxiboak hainbat kongresutan eta bileretan parte hartuko du 2009an. Besteak beste, Amsterdamen egingo den Musika Liburutegien Nazioarteko Elkartearen kongresuan izango dira Eresbiletan kideak. Hain zuzen ere, elkarte honetako zuzendariordea da Jon Bagues Eresbiletan zuzendaria. Halaber, musika artxiboak kontrolatzeko egitasmoan parte hartuko du Eresbiletan. Egitasmo hau Espainiako Musika Artxiboen Elkarteak jarri du martxan, eta artxiboen arteko harremanak sendotzea du helburu.

Bestalde, Eresbiletan eta Euskal Herriko Musikagileen Elkarteak egungo musikagileen katalogoak eguneratzen jarraituko dute 2009an. Etorkizunean, katalogo guztiak webgune batean eguneratzeko asmoa dute Eresbiletan eta Euskal Herriko Musikagileen Elkarteak.

Musika zikloei dagokienez, 2009an barrena, Eresbil-Eresiak ganbera musikako kontzertuak antolatuko dituzte. Otsailaren 3an, Mikel Gaztelurrutia piano-jolea eta Javier Lopez Jaso akordeoilaria arituko dira. Martxoaren 3an, Maria Mendizabal sopranoa, eta apirilaren 7an Donostiako Musika Eskolako kideak. Musikasteko 37. aldia, berriz, maiatzaren 16tik 23ra bitartean izango da, eta bertan Charles Bordes, Juan Jose Santesteban eta Sebastian Iradier musikagileak omenduko dituzte.